naturaldia zinema

# Nat Zinema

## IV. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

## IV MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

2024

OTSAILA
FEBRERO
27-1
MARTXOA
MARZO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Jasangarritasun Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Sostenibilidad

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

TOLOSA

Natura maite duzuen guztiei, ongi etorri Gnat Zinemaren IV. ediziora, Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldira.

Edizio honetan, gizakiaren eta bere ingurune naturalaren arteko harremana aztertzen jarraituko dugu. Askotan, jendeak uste du natura urrunekoa edo kanpokoa dela, ez dela bere bizitzaren parte, edo baliabide iturri hutsa dela. Hala ere, errealitatea da naturaren mende gaudela, eta gure bizitzek uste duguna baino harreman estuagoa dute naturarekin. Mendekotasun hori erakutsi nahi dugu, bai eta, premiagatik edo aukeragatik, gure natura ingurunearekin zuzeneko kontaktua galdu ez duten pertsonen bizitza ere, haien bizitzak ziklo eta prozesu naturalek markatzen baitituzte. Era berean, beren ongizatea zuzenean ekosistemen osasunaren mende dagoela ulertu duten komunitateen esperientzia erakutsiko dugu.

Helburu horrekin, zinema saioen osagarri, hizlari talde bikain batek parte hartuko du haietan, eta hain maitea duten naturara hurbilduko gaituzte.

Goza dezagun elkarrekin zinemaz, hausnarketaz eta naturarekiko loturaz betetako aste bizi honetaz.



**José Ignacio Asensio Bazterra**

**JASANGARRITASUNEKO FORU DIPUTATUA**
DIPUTADO FORAL DE SOSTENIBILIDAD

Gnat Zinema 2024

Gnaturaldia zinema

Damos la bienvenida a todas las personas amantes de la naturaleza a la IV edición de Gnat Zinema, la Muestra de cine de Naturaleza y Medio Ambiente de Gipuzkoa.

En esta edición seguiremos explorando la relación entre el ser humano y su entorno natural. A menudo, la gente percibe la naturaleza como algo distante o ajeno, algo que no forma parte de sus vidas o simplemente como una fuente de recursos. No obstante, la realidad es que dependemos de la naturaleza, y nuestras vidas guardan una relación más íntima con ella de lo que solemos pensar. Queremos mostrar esa dependencia, y también, la vida de personas que —bien por necesidad, bien por elección— no han perdido el contacto directo con el medio natural que los rodea, y cuyas vidas están marcadas por los ciclos y procesos naturales. También, la experiencia de comunidades que han llegado a comprender que su bienestar depende directamente de la salud de los ecosistemas en los que se asientan.

Con este propósito, complementamos las sesiones de cine con la participación de un selecto grupo de ponentes que nos acercarán esa naturaleza que tanto aman.

Disfrutemos juntos de esta intensa semana de cine, reflexión y conexión con la naturaleza.

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Jasangarritasun Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Sostenibilidad

Gnat Zinema 2024

IV. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

IV MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

Gnaturaldia zinema

**Naturarekin lotutako ikus-entzunezko edukiak eta solasaldiak, eta bereziki, pertsonek naturarekin duten harremana islatzen dutenak, harreman horietan sakondu asmoz.**

Contenidos audiovisuales y charlas relacionados con la naturaleza, y en especial, aquellos en los que se refleja la relación de las personas con ella para ahondar en profundidad en dichas relaciones.

## OTSAILA FEBRERO

**DONOSTIA - ANTZOKI ZAHARRA** TEATRO PRINCIPAL - **19:00**

### 27 ASTR/MA

**IREKIERA** INAUGURACIÓN

***Amalur***

\+

**SOLASALDIA ZUZENDARIAREKIN**
CHARLA CON EL DIRECTOR
**EGOI SUSO**




### 28 ASTZ/MI

***BIHOTZ BERDEAK***

***Con el Oído del Búho***

**SOINU LANTEGIA**
TALLER SONORO CON
**CARLOS DE HITA**




### 29 OSTG/JU

**ZINEFORUMA: ZERTARAKO BALIO DU NATURAK?**

***Hijos del Hielo***

\+

**SOLASALDIA** / CHARLA CON
**UNAI PASCUAL**




## MARTXOA MARZO

**TOLOSA** TOPIC - **19:00**

### 1 OSTR/VI

**AMAIERA** CLAUSURA

***De parque en parque: Doñana***

\+

**SOLASALDIA** / CHARLA CON
**JOAQUÍN ARAÚJO + MIGUEL DELIBES**




## SARRERAK DOAKOAK DIRA LAS ENTRADAS SON GRATUITAS

**SAIO GUZTIAK**
TODAS LAS SESIONES
**https://gip.eus/sarrerak**

**DONOSTIA**
**ANTZOKI ZAHARRA**
**Leihatilan eta webgunean.**
Taquilla y web.
**www.donostiakultura.eus/eu/sarrerak/sarrerak-erostea**

**TOPIC - TOLOSA**
**Lehiatilan eta webgunean.**
Taquilla y web.
**https://topic.eus/eu/entradas**

**OTSAILA** FEBRERO
**27** **ASTR**/MA
**DONOSTIA - ANTZOKI ZAHARRA** TEATRO PRINCIPAL | **19:00**

## *Amalur*

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** DURACIÓN | 41 min |
| **HIZKUNTZA** IDIOMA | Elkarrizketarik gabe<br>Sin diálogos |
| **ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN | Egoi Suso |
| **EKOIZLEA** PRODUCTORA | - |

**SARIAK** PREMIOS
BARCIFF (Barcelona Indie Film Festival): Film ertain onena / Mejor medio metraje; Suncine Festival: *Miradas WWF* saria / premio.

\+
**SOLASALDIA ZUZENDARIAREKIN**
CHARLA CON EL DIRECTOR




**Amalur dokumentalak gizakiaren bilakaera eta hark naturarekin duen harremana kontatzen ditu, antzina-antzinatik hasi eta milaka pertsona biltzen dituzten hiri handiak nagusi diren garai modernoenetaraino.**

**Aztergai du sozialki eta indibidualki nola jokatzen dugun, nola saiatzen garen errealitatetik ihes egiten bizirik irauteko desberdintasunez betetako mundu batean, zentzurik gabeko aurrerapen baten eta erritmo geldiezinean kontsumitzen den planeta baten aurrean.**

**Gainera, Amalur elkarrizketarik gabeko dokumental bat da, eta horrek aukera ematen die irudiei eta musikari beren kabuz hitz egiteko. Horrek oso esperientzia zinematografiko inbertsiboa sortzen du, sentsazioz betea, ikusleak bere inguruko munduari buruz hausnartzera bultzatzea helburu duena.**

Amalur es un documental que narra la evolución del ser humano y su relación con la naturaleza desde lo más ancestral hasta los tiempos más modernos donde imperan las grandes ciudades que albergan a miles de personas.

Un análisis de cómo nos comportamos socialmente e individualmente donde buscamos evadirnos de la realidad para sobrevivir ante un mundo lleno de desigualdades, un progreso sin sentido y un planeta que se consume a ritmo desenfrenado.

Además, Amalur es un documental sin diálogos, lo que permite que las imágenes y la música hablen por sí solas. Esto crea una experiencia cinematográfica muy inversiva, llena de sensaciones que pretende que el espectador reflexione sobre el mundo que le rodea.

# SOLASALDIA ZUZENDARIAREKIN
# CHARLA CON EL DIRECTOR



## EGOI SUSO

**AURKEZLEA** PRESENTADORA
Aunitz Alberdi

**Egoi Suso ikus-entzunezkoen errealizadorea eta ekoizlea da, eta 15 urtetik gorako esperientzia du. Zuzendaritza zinematografikoa ikasi ondoren, Eduardo Punseten TVE-ko “*Redes*” programa errealizatzen hasi zen, eta, handik gutxira, publizitate-merkatura eta dokumentalak egitera igaro.**

**Bere lehenengo dokumentala “*Dónde irán*” izan zen. Mamadou Díaren eta Sani Ladanen istorioa kontatzen da bertan, bizitza arriskuan jarriz eta familiak atzean utziz beren herrialdetik alde egin zuten bi lagunen istorioa, hain zuzen. Orain “Amalur” aurkezten du, 15 urtez 14 herrialdetan grabatu duen dokumentala. Bertan, ikuspegi bat ematen du gizakiak historian zehar izan duen bilakaeraren eta prozesu horretan naturarekin izan duen loturaren inguruan.**

Egoi Suso es realizador y productor audiovisual con más de 15 años de experiencia. Después de estudiar dirección cinematográfica, inició su trayectoria realizando el programa “*Redes*” TVE de Eduardo Punset y poco después saltó al mercado publicitario y a la realización de documentales.

Su primer trabajo documental fue “*Dónde Irán*” que narra la historia de Mamadou Día y Sani Ladan que salieron de su país jugándose la vida y dejando a sus familias atrás. Ahora presenta “Amalur” un documental que le ha llevado 15 años de filmación en 14 países diferentes y da una visión de cómo el humano ha evolucionado a lo largo de la historia y cómo se relaciona con la naturaleza en este proceso.

**OTSAILA** FEBRERO
**28** **ASTZ**/MI
**DONOSTIA - ANTZOKI ZAHARRA** TEATRO PRINCIPAL | **19:00**

## *Con el Oído del Búho*

**+**

**SOINU LANTEGIA CARLOS DE HITAREKIN**
TALLER SONORO CON CARLOS DE HITA

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** DURACIÓN | 51 min |
| **ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN | Carlos de Hita |
| **HIZKUNTZA** IDIOMA | Gaztelania / Castellano |

**BIHOTZ BERDEAK PROGRAMA**

**LANKIDETZA** / COLABORACIÓN

kutxa FUNDAZIOA




**Saio honetan, naturaren soinuak aztertuko ditugu, soinu-paisaiak atzematen eta naturako film eta dokumentalak soinuztatzen aditu handia den Carlos de Hitaren eskutik. Eta Kutxa Fundazioaren Bihotz Berdeak programan parte hartzen duten gazteen laguntzarekin egingo dugu hori.**

**Solasaldi/entzunaldi honetan, animalia basatien hizkuntzak eta horiek adierazten diren eszenatokiak, soinu-paisaiak, aztertuko ditugu. Ilunpetan dagoen areto batean, gauaren iluntasunean bezala, hontz baten entzumenarekin naturaren soinu-banda entzungo dugu.**

En esta sesión exploraremos los sonidos de la naturaleza de la mano de uno de los mayores expertos en la captación de paisajes sonoros y sonorización de películas y documentales de naturaleza: Carlos de Hita. Y lo haremos con la colaboración de jóvenes participantes en el programa Bihotz Berdeak de Kutxa Fundazioa.

En esta charla/audición haremos un recorrido inmersivo por los lenguajes de los animales salvajes y de los escenarios en los que se expresan, los paisajes sonoros. En una sala a oscuras, como en la oscuridad de la noche, escucharemos la banda sonora de la naturaleza con el oído de un búho.

# SOINU LANTEGIA
## TALLER SONORO



# CARLOS DE HITA

**AURKEZLEA** PRESENTADOR
**Aitor Elduaien**

**Carlos de Hita naturaren soinuaren eta soinu-paisaiaren grabazioan aditua da, eta duela hogeita hamar urte baino gehiago hasi zen jarduera horretan. Dokumentalen gidoilaria da eta Cadena SER irrati-katean kolaboratzen du.**

**Soinuarekin mota guztietako euskarriak lantzen ditu. Batzuetan irudiaren osagarri gisa, beste batzuetan elementu narratibo independente gisa. Lehenengoen artean, dokumental eta film luzeetarako giroko soinu-bandak grabatzen eta muntatzen parte hartu du. Bigarren taldekoen artean, soinua bera, soinu-paisaia naturalei, Espainiako parke nazionalei eta hegaztien kantuak identifikatzeko gida batzuei buruzko hainbat disko bilduma argitaratu ditu. Soinu-instalazioak muntatu ditu eta natura interpretatzeko erakusketa, museo eta zentroetan lagundu du.**

**Honako liburu hauen egilea da: “Viaje visual y sonoro por los bosques de España”; “El sonido de la naturaleza”, “Calendario sonoro de los paisajes de España”; “Sonidos del Mundo”, “Viajar de oídas” eta “Otoño, Estación de paso”, besteak beste. Espainiako Geografi Elkartearen Irudi Saria eta Biodibertsitatearen Ezagutza eta Sentsibilizazioa Zabaltzeko BBVA Fundazioaren Saria jaso ditu.**

**Duela hogei urte baino gehiagotik Segoviako Valsaín basoaren ondoan bizi da.**

Carlos de Hita es especialista en la grabación del sonido de la naturaleza y el paisaje sonoro, actividad que comenzó a practicar hace más de treinta años. Es guionista de documentales y colabora en la Cadena SER.

Con el sonido trabaja sobre todo tipo de soportes. Unas veces como complemento de la imagen, otras como elemento narrativo independiente. Entre las primeras, ha participado en la grabación y montaje de bandas de sonido ambiente para documentales y largometrajes. Entre las del segundo grupo, el sonido por sí solo, ha publicado varias colecciones de discos sobre paisajes sonoros naturales, los parques nacionales españoles y algunas guías de identificación de los cantos de las aves. Ha montado instalaciones sonoras y colaborado en exposiciones, museos y centros de interpretación de la naturaleza.

Es autor de los libros “Viaje visual y sonoro por los bosques de España”; “El sonido de la naturaleza”, “Calendario sonoro de los paisajes de España”; “Sonidos del Mundo”, “Viajar de oídas” y “Otoño, Estación de paso”, entre otros. Ha recibido el Premio Imagen de la Sociedad Geográfica de España y el Premio de la Fundación BBVA a la Difusión del Conocimiento y Sensibilización de la Biodiversidad.

Desde hace más de veinte años vive junto al bosque de Valsaín, en Segovia.

**OTSAILA** FEBRERO
**29 OSTG**/JU
**DONOSTIA - ANTZOKI ZAHARRA** TEATRO PRINCIPAL | **19:00**

## ZINEFORUMA: ZERTARAKO BALIO DU NATURAK?
CINEFÓRUM: ¿PARA QUÉ SIRVE LA NATURALEZA?

**FILMA + SOLASALDIA UNAI PASCUALEKIN**
FILMA + CHARLA CON UNAI PASCUAL




## *Hijos del Hielo*

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** DURACIÓN | 45 min |
| **HIZKUNTZA** IDIOMA | Gaztelania<br>Castellano |
| **ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN | Óscar Darío Jiménez |
| **EKOIZLEAK** PRODUCTORAS | Buenavida films + USAID |

**SARIAK** PREMIOS
Festival de Cine del Mar (Chile); Festival de Cine EL CINE SUMA PAZ (Colombia); Festival de Cine Inkafest (Perú); Festival de Cine CINE ECO SEIA (Portugal); FICAA (México); ECOCINE (Brasil).

**Lau gizonek eta emakume batek munduan apartekoak diren Kolonbiako glaziarrak miresten eta babesten eman zuten bizia. Hala ere, haien bizia sakrifikatzea ez da nahikoa izango mendia zaintzeko.**

Cuatro hombres y una mujer habían dedicado sus vidas a admirar y proteger los glaciares de Colombia, en particular estos glaciares que son únicos en el mundo. Sin embargo, sacrificar su vida para cuidar la montaña no será suficiente para evitar su extinción.

# SOLASALDIA CHARLA

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Euskara Euskera

**AURKEZLEA** PRESENTADOR
Aitor Elduaien

## Zertarako balio du naturak?

**Naturak baliabideak ematen dizkigu, klima eta ziklo hidrologikoak erregulatzen ditu eta jolaserako eta kirolerako aukerak ematen. Baina «zerbitzu ekosistemikoak» emateaz eta berezko balioa izateaz gain, natura gure nortasunaren parte da. Saio honetan, naturaren balioan sakondu nahi dugu hainbat ikuspegitatik, haren erabilgarritasun praktikotik haratago joanez eta pertsonek natura-ingurunearekin duten harremanari egozten dizkioten alderdi subjektibo, kultural eta emozionalak aintzat hartuz.**

## ¿Para qué sirve la naturaleza?

La naturaleza nos provee de recursos, regula el clima y los ciclos hidrológicos y brinda oportunidades de recreo y deporte. Pero más allá de proporcionar los denominados “servicios ecosistémicos” y de poseer un valor por sí misma, la naturaleza es parte de nuestra identidad. En esta sesión, queremos ahondar en el valor de la naturaleza desde diferentes perspectivas, incluyendo las que van más allá de su utilidad práctica y tienen que ver con los aspectos subjetivos, culturales y emocionales, que las personas atribuyen a su relación con el entorno natural.

---



# UNAI PASCUAL

**Unai Pascual ingurumen ekonomian doktorea da (York Unib. 2002). Cambridge Unibertsitateko (2002-2012) eta Manchesterreko Unibertsitateko (2000-2002) irakaslea izan da. 2010 geroztik Basque Centre for Climate Change (BC3) eta Ikerbasque Ikerlari seniorra da. Ingurumen arazo globalak, ekonomia eta gizarte dinamikekin lotzen ditu bere ikerketetan, beti ere ikuspegi sozio-ekologikotik. 200 ikerketa lan baino gehiago argitaratu ditu, horien artean, liburuak eta nazioarteko artikulu zientifiko ugari, hala nola Science eta Nature aldizkari ospetsuetan. Nazio Batuetan bioaniztasunaren zientzia eta politika alorrean aditua eta aritua. Euskal komunikabideetan ere kolaboratzen du maiz.**

Unai Pascual es Doctor en Economía Ambiental (York Unib. 2002). Ha sido profesor de la Universidad de Cambridge (2002-2012) y de la Universidad de Manchester (2000-2002). Desde 2010 es Investigador Senior del Basque Centre for Climate Change (BC3) e Ikerbasque. Relaciona los problemas ambientales globales con las dinámicas económicas y sociales en sus investigaciones, siempre desde el punto de vista socio-ecológico. Ha publicado más de 200 trabajos de investigación, entre ellos libros y numerosos artículos científicos internacionales, como las prestigiosas revistas Science y Nature. Es experto en ciencia y política de la biodiversidad en las Naciones Unidas. También colabora con frecuencia en los medios de comunicación vascos.

**MARTXOA** MARZO
**1** **OSTR**/VI
**TOLOSA - TOPIC | 19:00**

## DOÑANA SAIOA: KONTSERBAZIOARI EUSTEN
## SESIÓN DOÑANA: CONSERVANDO LA CONSERVACIÓN

### *De parque en parque: Doñana*

| | |
|---|---|
| **IRAUPENA** DURACIÓN | 50 min |
| **HIZKUNTZA** IDIOMA | Gaztelania<br>Castellano |
| **ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN | José Ramón González Pan |
| **EKOIZLEA** PRODUCTORA | RTVE |

+

**SOLASALDIA** / CHARLA CON **MIGUEL DELIBES + JOAQUÍN ARAÚJO**

**Doñana Europako naturagune preziatuenetako bat da, eta kontserbazioaren sinbolo oso bat. Saio honetan, parkea eta haren ekosistemak zeharkatuko ditugu, aurre egin beharreko kontserbazio-arazoak ezagutuko ditugu eta kontserbazioan dugun erantzukizunari buruz hausnartuko dugu, Doñana garrantzitsua zaien aparteko bi komunikatzaileren eskutik.**

Doñana es uno de los espacios naturales más apreciados de Europa y todo un símbolo de la conservación. En esta sesión, recorreremos el Parque y sus ecosistemas, conoceremos los problemas de conservación a los que se enfrenta y reflexionaremos sobre la responsabilidad que compartimos en su conservación, de la mano de dos comunicadores excepcionales, en cuyas vidas Doñana ha tenido un significado especial.






**Guadalquivirren ibai-ahoaren eta Ozeano Atlantikoaren artean, Doñanako Parke Nazionaleko hondartzak paisaia harrigarri hori osatzen du eguna joan eguna etorri, mugimenduan dauden dunen, mendi zuriaren eta mendi beltzaren eta amaigabea dirudien paduraren artean. Lurralde liluragarria da, eta, milaka urtetan zehar, hareak protagonista izaten jarraitzen du, parkeari aparteko nortasuna emanez.**

Entre la desembocadura del río Guadalquivir y el Océano Atlántico, la playa del Parque Nacional de Doñana, constituye cada día un pedazo más de este sorprendente paisaje de dunas en movimiento, de monte blanco y monte negro y de la marisma que parece infinita. Es un territorio fascinante en el que, a lo largo de miles de años, la arena sigue siendo la protagonista, dando al parque una personalidad única.

## SOLASALDIA
## CHARLA

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania Castellano

# JOAQUÍN ARAÚJO



**Joaquín Araújo nekazari eta abeltzain ekologikoa da. Bizi izan dituen egunak adina zuhaitz landatu ditu: 27.000. 120 liburu argitaratu ditu egile gisa, 11 egilekide gisa eta 63 liburu kolektibotan parte hartu du. 2.500 artikulu baino gehiago argitaratu ditu egunkari, blog eta aldizkari ugaritan. Zortzi entziklopedia zuzendu ditu. Komisario eta egile izan da 27 erakusketatan. 340 dokumentaletan lan egin du telebistarako, gidoilari eta zuzendari gisa. 5.600 irrati-saio egin ditu eta 2.500 hitzaldi eskaini. NBEren 500 Global saria jaso du, bi aldiz Ingurumen Sari Nazionala eskuratu du, eta bioaniztasunaren dibulgaziorako BBVA saria ere jaso du. Goya eta Oscar sarietarako hautagai izan zen *Nómadas del viento* lanagatik. Militante ekologista da duela 48 urtetik, eta 34 GKEtako kide da, eta horietako batzuetan sortzaile eta lehendakari izana ere bai. Akademikoa da eta Extremadurako Urrezko Domina jasotakoa.**

Joaquín Araújo es campesino y ganadero ecológico. Ha plantado tantos árboles como días ha vivido: 27.000. Ha publicado 120 libros como autor, 11 como coautor y ha participado en 63 volúmenes colectivos. Ha publicado más 2.500 artículos en numerosos diarios, blogs y revistas. Ha dirigido ocho enciclopedias. Ha sido comisario y autor de 27 exposiciones. Ha trabajado en 340 documentales para televisión como guionista y como director. Ha hecho 5.600 programas de radio y ha ofrecido 2.500 conferencias. Ha recibido un premio Global 500 de la ONU, ha sido dos veces Premio Nacional de Medio Ambiente y también ha recibido el Premio BBVA a la divulgación de biodiversidad. Fue candidato a los Goya y a los Oscar por su trabajo en *Nómadas del viento*. Es militante ecologista desde hace 48 años y miembro de 34 ONG, de las que de varias fue fundador y presidente. Es académico y Medalla de Oro de Extremadura.

# MIGUEL DELIBES



**Miguel Delibes de Castro Biologia Zientzietako doktorea eta CSIC-eko Ad honorem irakaslea da. 1988tik 1996ra Doñanako Estazio Biologikoaren zuzendari izan zen. Nazioarteko aldizkarietan ehunka artikulu zientifiko argitaratu ditu, baita dibulgazio-liburu eta artikulu ugari ere. Ugaztunak Kontserbatzeko eta Ikertzeko Espainiako Elkartearen (SECEM) sortzailea da eta Doñanako Partaidetza Kontseiluko presidentea. Sari ugari jaso ditu, besteak beste, Félix Rodríguez de la Fuente Natura Kontserbatzeko Sari Nazionala (2001) eta Alejandro Malaspina Ikerketa Sari Nazionala (2005). Honoris Causa doktorea da Malagako eta Salamancako Unibertsitateetan, eta Akademiko osoa Espainiako Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademian.**

Miguel Delibes de Castro es Doctor en Ciencias Biológicas y profesor ad honorem del CSIC. Desde 1988 a 1996 fue director de la Estación Biológica de Doñana. Ha publicado tres centenares de artículos científicos en revistas internacionales y numerosos artículos y libros de divulgación. Es fundador de la Sociedad Española para la Conservación y Estudio de los Mamíferos (SECEM) y presidente del Consejo de Participación de Doñana. Ha recibido numerosos premios, entre ellos el Premio Nacional Rodríguez de la Fuente a la Conservación de la Naturaleza (2001) y el Premio Nacional de Investigación Alejandro Malaspina (2005). Es Doctor Honoris Causa por las Universidades de Málaga y Salamanca y académico de número de la Real Academia de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales de España.

Gnaturaldia
zinema

# Gnat Zine ma



2024

**OTSAILA**
FEBRERO
**27-1**
**MARTXOA**
MARZO


**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Jasangarritasun Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Sostenibilidad

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

TOLOSA